

**HERNANIKO UDALA**

IRAGARPENA, SUE-29.3 Sektoreko P-1 Partzelako Zehazpen Azterlanari hasierako onarpena emateari buruzkoa. 7982

**Xedapen Orokorrak****LAN ETA GIZARTE  
SEGURANTZA SAILA****2373**

189/1994 DEKRETUA, maiatzaren 24koa, Euskadiko Kooperatiben Erroldaren antolaketa eta iharduna arautzen dituen.

Eusko Legebiltzarrak, Autonomi Estatutuko 10.23 atalak Euskal Autonomi Elkarteari ematen dion aginpi-dearen indarrez, Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legea onartu du.

Lege honetako I. idazpuruko III. atalburuan Euskadiko Kooperatiben Errolda da aztergai eta errolda horren funtsezko ildoak ezartzen dira, eta Azken Xedapenetako bostgarreneko lehenengo idazatian Euskadiko Kooperatiben Erroldaren antolaketa eta ihardunaren jaurbideari buruzko arauak presta ditzala agintzen zaio, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuaren proposamenez, Eusko Jaurlaritzari.

Euskadiko Kooperatiben Legea onartzearekin funtsezko aldaketa batzuk egin dira. Aldaketa horiek, hain zuzen ere, kooperatiben trafikiko juridikoari eragiten diote, eta horien xedea, zioen adierazpenean aditzera ematen denaren arabera, araubide berria EEEren Artzetaruei hurbiltzea eta gure zuzenbidean zein zuzenbide konparatuan jorratu diren aurrerapen eta tresna juridikoak sartzea da.

Berrikuntza horiek, kooperatibak Erroldatzeko bidea indartzean datzate, kooperatibentzat beraientzat nahiz besterentzat garrantzia izan lezaketen gertaerei publikizitatea emanez kooperatiben enpresa-trafikoari segurtasuna emateko. Hain zuzen ere, nahitaezko indartze horren karian prestatzen da arau hau.

Euskadiko Kooperatiben Errolda kooperatiben aldean eraginkortasun juridiko pribatua duen Errolda juridiko bezala definitzean oinarritzen dira arautze honen ildo nagusiak.

Hala ere, ezin ahanzi dezakegu Euskadiko Kooperatiben Errolda administrazioko antolaketaren barne kokatzen dela eta, zehazkiago, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko Gizarte Ekonomia Zuzendaritzari atxikitzen zaiola, eta, beraz, horren ihardute-arauari men egin beharrean dagoela.

**AYUNTAMIENTO DE HERNANI**

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial del Estudio de Detalle de la Parcela P-1 del Sector SUE-29.3. 7982

**Disposiciones Generales****DEPARTAMENTO DE TRABAJO  
Y SEGURIDAD SOCIAL****2373**

DECRETO 189/1994, de 24 de mayo, de organización y funcionamiento del Registro de Cooperativas de Euskadi.

El Parlamento Vasco, en virtud de la competencia que el artículo 10.23 del Estatuto de Autonomía atribuye a la Comunidad Autónoma del País Vasco, ha aprobado la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi.

Esta Ley dedica el Capítulo III del Título I al Registro de Cooperativas de Euskadi estableciendo las líneas básicas del mismo y ordena, en su Disposición Final Quinta, párrafo primero, al Gobierno Vasco, a propuesta del Consejero de Trabajo y Seguridad Social, la elaboración de las normas reguladoras del régimen de organización y funcionamiento del Registro de Cooperativas de Euskadi.

La aprobación de la Ley de Cooperativas de Euskadi ha supuesto la introducción de modificaciones sustanciales que afectan al tráfico jurídico cooperativo y que han tenido por objeto, en los términos expresados en su Exposición de Motivos, aproximar la nueva regulación a las Directivas de la CEE e introducir los avances e instrumentos jurídicos que se han desarrollado tanto en nuestro Derecho interno como en el comparado.

Estas novedades han de reflejarse en un reforzamiento del sistema registral de las Cooperativas con el fin de proporcionar seguridad al tráfico empresarial cooperativo mediante la publicidad de los hechos que puedan tener trascendencia para las propias Cooperativas o para terceros. Este necesario reforzamiento, motiva, por tanto, la elaboración de la presente norma.

Las líneas generales de la presente regulación se basan en la definición del Registro de Cooperativas de Euskadi como un registro jurídico con eficacia jurídica privada respecto a las Cooperativas.

Sin embargo, no podemos obviar la incardinación del Registro de Cooperativas de Euskadi dentro de la organización administrativa, y, en concreto, su adscripción a la Dirección de Economía Social del Departamento de Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco, sometido, en consecuencia, a sus normas procedimentales.

Dekretu honetako berrikuntzarik handieneko alderditzat honako hauek nabarmendu ditzakegu: aurreko arautzarekin ezarritako antolaketa banatuaren aurrean organo bateratu bezala antolatzen da Euskadiko Kooperatiben Errolda, erroldako tituluak kalifikatzeko irizpide-batasuna ziurtatzeko premia eta administrazio-eraginkortasuna eta -erosotasunaren printzipioak gogoan izanik; Errolda-oinarriak eta hauen ondorio juridikoak osoago arautzen dira; Erroldatze konstitutiboen kasuak aldatu eta eginkizun berriak ematen zaizkio Erroldari, Euskadiko Kooperatiben Legearen arabera. Horrela, bada, ohizko kalifikatze-, erroldatze- eta egiaztatze-eginkizunez gain, derrigorrezko liburuak gaitu eta legeztatzea, urteko kontuak gordailuan sartzea eta bere aginpideko gaiei buruz egiten zaizkion kontsultak argitzea dagokio Erroldari.

Bai beste errolda publiko batzuekiko, funtsean eraldatze eta bategite berezien kasuetan, eta bai Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorenean ordezkaturik dagoen euskal kooperatiben mugimenduarekiko komunikazio-bideak irekitzea da Dekretu honen nahia. Hain zuzen ere, garrantzi handieneko kasuetan Euskal Kooperatiben Kontseilu Nagusiak Erroldatze-prozeduran parte har dezala eskatzen da, eta hori guztia, enpresen trafiko juridikoa eraginkorragoa izan dadin.

Dekretu honetako I. idazpuruak, erroldaren antolaketa, eragina eta ihardunari buruzkoak, erroldaren ihardunbide orokorra arautzen du, sail bateratu bezala egituratzen eta horren ihardute-eremua eta eginkizunak zehazten.

Erroldaren iharduna arautzen duten eta Euskadiko Kooperatiben Legean dagoeneko finkatuta dauden oinarriko printzipioak ezartzen dira. Ihardunari dagokionez, Erroldatu beharreko agiriaren oharpen laburra egin eta dagokion agiritegira jotzeko bideari eusten zaio, eta oharpenetako akatsak zuzentzeko modua oharrematen da.

Kalifikazioa Erroldatzearen ondorioetarako emango da soilik, arrazoitua izan beharko da eta doakienei jakinarazi egin beharko zaie.

Kalifikazioa ematen duen erabakiaren aurka auzibide zibilerara jo aurreko erreklamazio nahiz errekurtsio arrunta jar daiteke, erabakia emateko oinarritzat hartzen diren arau eta irizpide juridiko pribatuak edo zuzenbide publikoari dagozkionak kontutan izanik, Erroldako iharduerak sor ditzakeen auziak ebaztea gaien espezializatutako epailearen esku utzi dadin.

II. idazpuruak, kooperatibak erroldatzeari buruzkoak, horien ihardunaren aldiak taxutzen dituen erroldaren araubidearen hainbat alderdi hartzen ditu, osoa eta zehatza izan nahi duen araudi baten bidez.

Idazpuru horretan berme formalak indartzen dira, bi eginbehar ezartzen dituela: alde batetik, eskribau-agiria eskatzen da, bai kooperatiba eratzeko, baita kooperatibaren bilakaera sozialeko egintza garrantzizkoenak erroldatzeko ere. Horrela, aurreko araudia funtsean

Cabe destacar como aspectos más novedosos del presente Decreto, la estructuración del Registro de Cooperativas de Euskadi como órgano unitario frente a la organización desconcentrada de la regulación anterior, en atención a la necesidad de asegurar la uniformidad de criterios en la calificación de los títulos registrales así como a los principios de eficacia y economía administrativa; se establece una regulación más completa de los principios registrales y de los efectos jurídicos derivados de los mismos; se modifican los supuestos de inscripción constitutiva y se atribuyen nuevas funciones al Registro, de acuerdo con la Ley de Cooperativas de Euskadi. Así, además de las funciones tradicionales de calificación, inscripción y certificación, corresponde al Registro, la habilitación y legalización de los Libros obligatorios, recibir el depósito de las cuentas anuales y resolver las consultas que se le planteen sobre las materias de su competencia.

El presente Decreto pretende instituir los cauces de intercomunicación tanto con otros Registros públicos, sustancialmente en los supuestos de transformaciones y fusiones especiales, como con el movimiento cooperativo vasco representado en el Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi cuya participación en el procedimiento registral se requiere en determinados supuestos de mayor trascendencia, todo ello, en aras a la consecución de una mayor eficacia del tráfico jurídico empresarial.

El Título I del Decreto, dedicado a la organización, eficacia y funcionamiento del Registro, regula el régimen general de actuación del mismo, fijando su estructuración como órgano unitario, su ámbito de actuación y sus funciones.

Se establecen los principios básicos que rigen la actuación registral ya consagrados en la Ley de Cooperativas de Euskadi. Respecto al funcionamiento se mantiene el sistema de extensión sucinta de los asientos con expresa remisión al archivo donde conste el documento objeto de inscripción y, se prevé el régimen de corrección de errores de los asientos.

La calificación, que se limitará a los solos efectos de la inscripción, habrá de ser motivada y notificada a los interesados.

La resolución de calificación podrá ser impugnada mediante reclamación previa a la vía judicial civil o mediante recurso ordinario en atención a las normas y criterios jurídico privados, o de Derecho público, en que se sustente la resolución, en un intento de reconducir el conocimiento de las cuestiones litigiosas que puedan derivar del procedimiento registral, al juez especializado en la materia.

El Título II, destinado a la inscripción de las Sociedades cooperativas, comprende los aspectos del régimen registral configurador de las distintas fases de la vida de las mismas en una regulación que trata de ser completa y minuciosa.

Dicho título se sustenta en un reforzamiento de las garantías formales, a través, de una doble exigencia. Por una parte, la escritura pública como requisito no sólo para la constitución de la Cooperativa, sino también para los actos de mayor trascendencia de su evolu-

aldatzen da, han ez baitzen betebeharrak formal hori eskatzen, eta, ez bairik gabe, agiri publikoaren egileen notatasuna eta gaitasuna zein ahalmenak ziurtatzen dira.

Horrela, bada, agiri publikoa honako egintza hauek eroldatzeko eskatzen da: kooperatibak eratzea egiteratze-batzordeko kideen nahiz kontseilari ordezkarien izendapena eta kargugabetzea, baita gero egintza horiek aldatzeko hartzen diren erabakiak ere; zuzendari-gerenteen izendapena eta kargugabetzea; esku-emate orokor eta bereziak, eta artezte-batzordearen ahalmenak egiteratze-batzordeari nahiz kontseilari ordezkariari ordezkotzan ematea; estatutuen aldaketa oro; kooperatiba eraldatzea eta kooperatiba bihurtzea; bategitea, dela beste bat sortzeagatik dela beste batek iresteagatik, banatzea, desegitea eta kitatzea.

Bestalde, kooperatibaren ihardunerako garrantziarik handieneko erabakientzat eroldatze konstitutiboari eusten zaio, segurtasun juridikoarentzat egokiago delako; gainerako erabakientzat, berriz, eroldatze deklaratihoa nahikoa izango da, enpresen trafikoa juridikoa zorrotzegia izan ez dadin. Hori horrela, eroldatze konstitutibo beharko da kooperatibak eratu, bategin, banatu, desegin eta birreratu nahi direnean, baita kooperatiba bihurtu nahi denean ere.

Horiez gain, beste honako alderdi hauek nabarmendu daitezke II. idazpuruari dagokionez: baltzu-estatutuak alde aurretik kalifikatzeko prozedura arautzen da; kooperatibaren ihardunaren aldiei buruzko tituluetan, eroldatu beharrekoak direnetan alegia, ageri behar duten zer-nolakoak adierazten dira zehatz-mehatz, eta Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorenak aurretiaz txostena eman ondoren enpresaren aldi baterako interbentzioa eroldatzeko premia ezartzen da.

III. idazpuruak kooperatiba-elkarteen eroldatzea oharrekin du. Kooperatiba-elkartetzat hartzen dira gehienbat Euskadiko Kooperatiben Legeak araututako kooperatibak biltzen dituzten batasun, federazio, federazio-elkarte nahiz bestelako elkartek.

Erroldatzea publizitate formalaren ondorioetarako egingo da soilik, elkartzeko eskubideari buruz Konstituzioan araututakoa aintzat harturik.

Idazpuru honetan oharrekin diren arauekin elkartzeko askatasuna errespetatzen saiatu da, eta horretarako, eroldatze deklaratihoa ezarri da dekretu honetan. Hortaz, Euskadiko Kooperatiben Legean eskatzen diren betebeharrak formalak betetzen direnentz egiaztatzea mugatuko da Erroldaren iharduna. Horrez gain, baltzu-estatutuen gutxienezko edukia azaltzen da, eta eroldatu beharreko egintzak zehazten. Amaitzeko, kooperatiba-elkarteen izenari buruzko ohar batzuk ematen dira.

Azkenik, IV. idazpuruan Kooperatiben Erroldaren beste eginkizun batzuk dira aipagai, eta araudi guztiz berria ezartzen da, aurreko araudiarekin alderatuz gero. Hona hemen erroldari ematen zaizkion eginkizun

social, modificando sustancialmente con ello la regulación anterior que obviaba este requisito formal y que, sin duda, viene a asegurar tanto la identidad como la capacidad y facultades de los otorgantes de la escritura pública.

Así, se establece el requisito de escritura pública para la inscripción de los siguientes actos: la constitución; el nombramiento y cese de los miembros de la Comisión Ejecutiva o de los Consejeros Delegados, así como de los acuerdos posteriores que los modifiquen; el nombramiento y cese de los Directores-Gerentes; los apoderamientos generales y singulares y delegaciones permanentes de facultades del Consejo Rector en la Comisión Ejecutiva o en los Consejeros Delegados; toda modificación estatutaria; la transformación de Cooperativas así como la transformación en Cooperativas; la fusión, por creación de una nueva o por absorción; la escisión; la disolución y la liquidación.

Por otra parte, se mantiene el sistema de inscripción constitutiva para los acuerdos de mayor trascendencia para la vida de la Cooperativa, por ser más adecuado a la seguridad jurídica mientras que se reserva el sistema de inscripción declarativa para los demás acuerdos con el objeto de evitar una excesiva rigidez al tráfico jurídico empresarial. Así, tendrá carácter constitutivo la inscripción de la constitución, fusión, escisión, disolución, reactivación de las Cooperativas y la transformación en Sociedades cooperativas.

Por lo demás, cabe destacar de este Título II, la regulación del procedimiento de calificación previa del proyecto de Estatutos sociales; el desarrollo, de forma detallada, de las circunstancias que han de constar en los títulos sujetos a inscripción referidos a las distintas fases de la vida de la Cooperativa o la necesidad de inscripción de la intervención temporal de la Cooperativa previo informe del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi.

El Título III contempla la inscripción de Asociaciones de Cooperativas, entendiéndose por tales a las Uniones, Federaciones, Asociaciones de Federaciones u otras entidades asociativas que agrupen mayoritariamente a Cooperativas reguladas por la Ley de Cooperativas de Euskadi.

Dicha inscripción se producirá a los solos efectos de publicidad formal en atención a la propia regulación constitucional del derecho de asociación.

La previsión normativa de este Título trata de respetar el principio de libertad de asociación y, a tal fin, se establece en el presente Decreto, la inscripción con carácter declarativo, limitándose, por tanto, la actuación del Registro, a la comprobación del cumplimiento de los requisitos de carácter formal exigidos por la Ley de Cooperativas de Euskadi y por este Decreto y se esboza un contenido mínimo de los estatutos asociativos. Asimismo, se fijan los actos objeto de inscripción y finaliza el Título con una previsión acerca de la denominación de las Asociaciones cooperativas.

Por último, el Título IV se destina a otras funciones del Registro de Cooperativas, en una regulación totalmente novedosa con respecto al marco normativo anterior, atribuyéndole las funciones de habilitación y lega-

berriak: derrigorrezko liburuak gaitu eta legeztatzea; urteko kontuak gordailuan sartu eta horien publikizitatea egitea; kooperatiben izenari buruzko egiaztagiriak ematea, eta bere eskumeneko gaiei buruzko zalantzak argitzea.

Erroldaren eginkizun berrietako lehenengoarekin segurtasun juridikoari eutsi eta kooperatiben baitako ihardunaren eragina eta bizkortasuna areagotu nahi da. Horretarako, orri zuriko liburuak gaitzearen eta azalez-tatutako liburuak idatzi ondoren legeztatzearen arteko bereizketa egiten da, liburuak gaitzeko eta legeztatzeko bidea arautzen da, eta akta-liburua osatuko duten agiriak legeztatzeko bide zorrotzagoa ezartzen.

Urteko kontuak gordailuan sartu eta horien publikizitatea egiteari dagokionez, kontu horiek zuzen onartu diren eta beharrezko izenpeak dituzten egiaztagirera mugatuko da Erroldaren iharduna. Hortaz, Erroldak ez du kontuak zuzenak direnentz aztertuko. Halaber, kontu horien publikizitatea ere arautu egin da.

Kooperatibaren izenak nolakoa izan behar duen, izenaren egiaztagiria bidaltzeko prozedura eta debekuak eta izenak gordetzeko araubidea ere zehazten dira.

Azkenik, erroldari zalantzak galdetzeko bidea arautzen da, kooperatiben trafikoko ihardularien egitekoa erraztu asmoz. Galdera horiek informazio izaera dute soilik, eta ez dute erroldako geroko prozedurekin loturarik izango. Halaber, kooperatiben mugimendurekin lankidetzeta gauzatzeko bidea eratu da, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorenaren bitartez, galdera garrantzitsuenei erantzuteko.

Ondorioz, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuaren proposamenez, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorenari eta gainerako erakunde aholku-emaileei entzun ondoren, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1994ko maiatzaren 24an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATU DUT:

I. IDAZPURUA.- EUSKADIKO KOOPERATIBEN ERROLDAREN ANTOLAKETA, ERAGINA ETA IHARDUNBIDEA.

I. ATALBURUA.- EUSKADIKO KOOPERATIBEN ERROLDAREN ANTOLAKETA ETA EGINKIZUNAK.

1. atala.- Antolaketa eta izaera.

1.- Euskadiko Kooperatiben Errolda, Euskadiko Kooperatiben Legeak aipatzen duena, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Gizarte Ekonomia Zuzendaritzari atxikitako sail bateratu bezala egituratzen da.

2.- Errolda horrek izaera juridikoa du eta dohaineko zerbitzu publikoa da, hala herritarrentzat nola bertan izena eman nahi duten erakundeentzat.

lización de Libros obligatorios; depósito y publicidad de las cuentas anuales; expedición de certificaciones sobre la denominación de las entidades cooperativas y resolución de consultas que sean de su competencia.

Con la atribución de la primera de las nuevas funciones al Registro se ha pretendido compaginar la seguridad jurídica con la mayor eficacia y agilidad del funcionamiento interno de las Cooperativas. Para ello, se diferencia entre habilitación de Libros en blanco y la legalización de Libros formados por hojas encuadradas con posterioridad a su redacción; se regula el procedimiento de habilitación y legalización y se prevé un procedimiento más riguroso para la legalización de las Actas que, con posterioridad, formarán parte del Libro de Actas.

En cuanto al depósito y publicidad de las cuentas anuales, la actuación del Registro se restringe a comprobar la correcta aprobación formal de las mismas así como la constancia de las firmas preceptivas, sin entrar, por tanto, en analizar si son materialmente correctas. Asimismo, se regula la publicidad de dichas cuentas.

Se determina la composición de la denominación de las Cooperativas, el procedimiento de emisión de la certificación de denominación y el régimen de prohibiciones y reserva de dichas denominaciones.

Finalmente, se regula el régimen de consultas al Registro en un intento de facilitar la labor de los operadores del tráfico cooperativo, si bien, se dota a dichas consultas de carácter exclusivamente informativo, sin vinculación alguna con futuros procedimientos registrales. Asimismo, se instituye un sistema de colaboración con el movimiento de Cooperativas, a través del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi, para aquellas consultas de mayor trascendencia.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Trabajo y Seguridad Social, oído el Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi y los demás órganos consultivos interesados, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 24 de mayo de 1994,

#### DISPONGO:

TITULO I.- ORGANIZACION, EFICACIA Y FUNCIONAMIENTO DEL REGISTRO DE COOPERATIVAS DE EUSKADI

CAPITULO I.- ORGANIZACION Y FUNCIONES DEL REGISTRO DE COOPERATIVAS DE EUSKADI

Artículo 1.- Organización y carácter.

1.- El Registro de Cooperativas de Euskadi, al que se refiere la Ley de Cooperativas de Euskadi, se estructura como órgano unitario adscrito a la Dirección de Economía Social del Departamento de Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco.

2.- Dicho Registro, tiene carácter jurídico y se configura como un servicio público de funcionamiento gratuito para los ciudadanos y las entidades interesadas en acceder al mismo.

*2. atala.* – Helburua.

1.– Euskadiko Kooperatiben Errolda aginpidedun izango da lehenengo, bigarren nahiz hurrengo mailako kooperatibentzat, kooperatiba korporazioentzat eta kooperatiba mistoentzat. Kooperatiba horien egoitza sozialak Euskal Autonomi Elkartearen egon beharko du, kooperatibaren helburu soziala zehazteko kooperatibaren beraren baitako harremanak Euskal Autonomi Elkartearen lurraldetik kanpo gauzatzen dituztenenak izan ezik.

2.– Aginpidedun izango da, halaber, kooperatiba-batasun eta -federazioentzat, federazio horien elkartentzat eta batez ere Euskadiko Kooperatiben Legearen araututako kooperatibak biltzen dituzten erakundeentzat, egoitza soziala Euskal Autonomi Elkartearen lurraldean dutenentzat, alegia.

3.– Erroldatzea aukerakoa izango da, Euskadiko Kooperatiben Legeko 134.1 atalarekin bat etorritik, atal honetako 1. puntuan oharremandakoak bestelako helburu ekonomikoa duten erakundeak baldin badira, pertsonifikatuak izan ala ez, eta gehienbat Lege horretan araututako kooperatibek osatzen baldin badute.

*3. atala.* – Eginkizunak.

Hona hemen erroldaren eginkizunak:

a) Lehenengo, bigarren nahiz hurrengo mailako kooperatiba, kooperatiba-batasun nahiz federazio, federazio-elkarte edo gehienbat kooperatibak biltzen dituzten erakunde juridikoen egintzak, indarreango araudiaren arabera erroldan sartu beharrekoak direnak, kalifikatzea, erroldatzea eta egiaztatzea

b) Derrigorrezko liburuak gaitu eta legeztatzea.

c) a) idatzian aipatzen diren kooperatiben urteko kontuak eta erabakien egiaztatzea gordetzea.

d) Kooperatiben izenari buruzko egiaztagiria ematea.

e) Bere aginpideko gaiei buruzko kontsultak argitzea.

f) Euskadiko Kooperatiben Legeak nahiz horren garatze-arauek agintzen dioten beste zernahi eginkizun.

## II. ATALBURUA.– ERROLDAREN ERAGINA

*4. atala.* – Erroldaren eragina.

Publizitate material eta formalean, legez kotasunean, legitimazioan, lehentasunean eta traktu jarraian oinarritzen da Erroldaren eragina.

*5. atala.* – Erroldatzeen izaera.

1.– Erroldatzea derrigorrezkoa izango da Euskadiko Kooperatiben Legeak nahiz Dekretu honek hala erabakitzen duenean. Erroldatzeko betekizuna bete gabe uztea arau-hauste larritzat joko da, Lege horretako 139.4 ataleko c) idatzian erabakitakoaren arabera.

*Artículo 2.* – Objeto.

1.– El Registro de Cooperativas de Euskadi será competente respecto a las Cooperativas de primero, segundo o ulterior grado, Corporaciones cooperativas y Cooperativas mixtas, cuyo domicilio social se encuentre dentro del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, excepto aquellas cuyas relaciones de carácter cooperativo interno que resulten definitivas del objeto social cooperativo, se lleven a cabo, efectivamente, fuera del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Asimismo, será competente respecto a las Uniones y Federaciones de Cooperativas, Asociaciones de dichas Federaciones u otras entidades asociativas que agrupen mayoritariamente a Cooperativas reguladas en la Ley de Cooperativas de Euskadi, cuyo domicilio social radique dentro del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

3.– La inscripción en el Registro será meramente potestativa cuando, de conformidad con el artículo 134.1 de la Ley de Cooperativas de Euskadi, se trate de entidades personificadas o no, pero con finalidad económica, distintas de las previstas en el número 1 de este artículo y constituidas, en su mayoría, por Cooperativas reguladas en la citada Ley.

*Artículo 3.* – Funciones.

El Registro tendrá las siguientes funciones:

a) Calificar, inscribir y certificar los actos que según la normativa vigente deban acceder a dicho Registro, que se refieran a Cooperativas de primero, segundo o ulterior grado, a Uniones y Federaciones de Cooperativas, a Asociaciones de dichas Federaciones o a otras entidades jurídicas que agrupen mayoritariamente a Cooperativas.

b) Habilitar y legalizar los Libros obligatorios.

c) Recibir el depósito de las cuentas anuales y la certificación de los acuerdos correspondientes de las Cooperativas a las que se refiere el apartado a).

d) Expedir certificaciones sobre la denominación de las entidades cooperativas.

e) Resolver consultas sobre las materias que sean de su competencia.

f) Cualquier otra función que le atribuyan la Ley de Cooperativas de Euskadi o sus normas de desarrollo.

## CAPITULO II.– EFICACIA REGISTRAL

*Artículo 4.* – Eficacia del Registro.

La eficacia del Registro está definida por los principios de publicidad material y formal, legalidad, legitimación, prioridad y tracto sucesivo.

*Artículo 5.* – Carácter de las inscripciones.

1.– La inscripción en el Registro será obligatoria cuando así lo disponga la Ley de Cooperativas de Euskadi o el presente Decreto. El incumplimiento de la obligación de inscribir constituye infracción grave, según lo dispuesto en el artículo 139.4 apartado c) de dicha Ley.

2.- Lege-testu horretako 16.2 atalarekin bat etorriz, kooperatiben eratze, bategite, banatze, desegite eta berrindartze egintzen Erroldatzeak izaera konstitutiboa izango du, baita izaera horretako baltzu bihurtzeko behar diren egintzenak ere. Gainerako kasuetan deklaratihoa izango da Erroldatzea.

6. atala.- Legezketasuna.

Erroldatu beharreko agiri guztiak kalifikatu egingo dira, eta horretarako kontutan hartuko dira agirien azaleko itxuren legezketasuna, agiriak eman nahiz izenpetzen dituztenen legitimazioa eta edukiaren, agirien ondorioen eta erroldako oharpenen balioa, indarrean dagoen legediaren arabera.

7. atala.- Publizitate formal.

1.- Euskadiko Kooperatiben Errolda publikoa da.

2.- Erroldako Liburuek eta oharpenek aipatzen dituzten agiriak erakutsiaz egingo da publizitatea, erroldak emandako egiaztagiri bidez eta atal honetako 5. zenbakian aipatzen diren bidez baliatuz.

Egiaztatzea da erroldako oharpenak nahiz erroldan artxibatu edo gordetako agiriak sinesgarriro erakusteko bide bakarra.

3.- Egiaztapenak idatziz eskatu beharko zaizkio Errolda arduradunari, egiaztatu nahi diren alderdiak zeintzuk diren argi eta garbi adieraziaz, eta eskabideari sarrera ematen zaionetik hasi eta hamabost eguneko epe barruan emango dira.

Bidezko interesa erakusten duenaren eskariz nahiz administrazio arloko agintariaren edo epailearen aginduz emango dira egiaztapenak. Azken hauei eskatzen direneko agiri berean ekingo zaie.

4.- Oharpen laburren egiaztapenak agiritegian dau den zehaztasunak hartzen ditu, berez eta besterik gabe erroldaren edukiaren egiaztagarri izan dadin.

Hitzez-hitzeko egiaztapena egin behar denean, fotokopiez nahiz birsortzeko bestelako zernahi baliabide mekanikoz balia daiteke.

5.- Publizitatea jakinarazpen-ohar soilez edo erroldan jasotako oharpen eta agirien fotokopia bidez ere egin daiteke. Erroldako oharpenak eta agiriak orri kopurua eta zein egunetan ematen diren adieraziz emango dira, behar bezala zigitaturik.

8. atala.- Publizitate material.

1.- Erroldako Liburuen edukia denek ezagutzen dutela jotzen da, eta horren berri ez izana ez da aintzat hartuko.

2.- Erroldatu beharrekoak izanik erroldatu ez diren egintzek ez dute uste oneko hirugarrenentzat eraginik izango. Hirugarrena uste onekoa jotzen da erroldatu gabeko egintza ezagutzen zuela frogatzen ez den arte.

Erroldatzeko eginbidea betetzen ez duenak ezingo du erroldatu ez izana aitzakiatzat azaldu.

9. atala.- Legitimazioa.

2.- De conformidad con el artículo 16.2 del mencionado texto legal, la inscripción de los actos de constitución, fusión, escisión, disolución y reactivación de las Cooperativas, así como la relativa a la transformación en una Sociedad de esta naturaleza, tendrá carácter constitutivo. En los demás casos la inscripción será declarativa.

Artículo 6.- Legalidad.

Todos los documentos sujetos a inscripción serán sometidos a calificación que comprenderá la legalidad de sus formas extrínsecas, así como la legitimación de los que los otorgan o suscriben y la validez del contenido, de lo que resulte de ellos y de los asientos del Registro, de acuerdo con la legislación vigente.

Artículo 7.- Publicidad formal.

1.- El Registro de Cooperativas de Euskadi es público.

2.- La publicidad se hará efectiva mediante la manifestación de los Libros y de los documentos del archivo a que hagan referencia los asientos registrales, por certificación expedida por el Registro y por los demás medios a que se refiere el número 5 de este artículo.

La certificación es el único medio de acreditar fehacientemente el contenido de los asientos del Registro o de los documentos archivados o depositados en el mismo.

3.- Las certificaciones deberán solicitarse mediante escrito dirigido al Encargado del Registro expresando con claridad los extremos objeto de certificación, y serán expedidas en el plazo de quince días contados desde la fecha en que la solicitud haya tenido entrada.

Las certificaciones se extenderán a petición de quien acredite un interés legítimo o por mandamiento de autoridad administrativa o judicial. Estas últimas se iniciarán en el mismo documento en que se soliciten.

4.- La certificación de asientos sucintos comprenderá los datos que consten en el archivo de modo que sea, por sí sola, acreditativa del contenido del Registro.

Cuando la certificación sea literal podrá realizarse mediante la utilización de fotocopias o de cualquier otro medio mecánico de reproducción.

5.- La publicidad se podrá también hacer efectiva por simple nota informativa o fotocopia de los asientos y de los documentos depositados en el Registro, que se expedirán con indicación del número de hojas y de la fecha en que se extiende, debidamente selladas.

Artículo 8.- Publicidad material.

1.- Se presume que el contenido de los Libros del Registro es conocido por todos, no pudiéndose invocar su ignorancia.

2.- Los actos sujetos a inscripción no inscritos no producirán efectos en relación a terceros de buena fe. La buena fe del tercero se presume en tanto no se pruebe que conocía el acto sujeto a inscripción y no inscrito.

No se podrá invocar la falta de inscripción en su favor, por aquél que incurrió en su omisión.

Artículo 9.- Legitimación.

1.- Erroldako oharpenak zehatzak eta baliozkoak direla jotzen da, eta eragingarriak izango dira harik eta zehaztasun ezaren edo baliogabetasunaren adierazpena erroldatzen ez den arte.

2.- Zehaztasun eza nahiz baliogabetasuna adierazteak ez die uste oneko hirugarrenek erroldaren edukia-  
ren arabera eskuratutako eskubideei kalterik egingo.

3.- Erroldatzeak ez ditu legeen arabera baliorik gabeak diren egintzak baliokidetzen.

#### 10. atala.- Lehenasuna.

1.- Zernahi tituluren bada-ezpadako erroldatze eta oharpena egiten bada, ezingo da beste titulurik erroldatu, delako titulua, egun berekoa nahiz lehenagokoa izan, haren kontrakoa edo bateraezina baldin bada behintzat.

2.- Erroldako eragiketak agiriak aurkezten diren hurrenkeraren arabera beteko dira, eta erroldan aurrea sartzen diren agiriekin lehenasuna izango dute geroago sartzen direnen aldean.

#### 11. atala.- Traktu jarraia.

1.- Erroldatu beharreko subjektu bati buruzko egintzak edo kontratuak erroldatu ahal izateko, subjektua bera erroldatuta egon beharko da aurretik.

2.- Lehendik eginda dauden egintza nahiz kontratuen aldaketa edo iraungitzea erroldatu ahal izateko, egintza edo kontratu horiek erroldatuta egon beharko dute aurretik.

3.- Ahaldunek nahiz administratzaileek egindako egintzak edo kontratuak erroldatu ahal izateko, haiek erroldatuta egon beharko dute aurretik.

4.- Administratzaileen, egiteratze-batzordeko kideen, kontseilari ordezkarien, zuzendari-gerenteen eta zaingo-batzordeko kideen izendapena eta kargugabetzea erroldatu ahal izateko, lehendik hartutako erabakiek erroldatuta egon beharko dute. Arau bera ezarriko da kooperatiben korporazioetako sailletako kideen izendapenari dagokionean.

### III. ATALBURUA.- ERROLDAREN IHARDUNBIDEA.

#### 1. SEKZIOA.- LIBURUAK

##### 12. atala.- Liburuak.

1.- Euskadiko Kooperatiben Erroldan honako liburu hauek egongo dira:

- a) Liburu egunkaria.
- b) Kooperatiba eta bestelako enpresa-taldean Erroldatze-liburua.
- c) Kooperatiba elkarten Erroldatze-liburua.
- d) Gaitze eta legeztatzeen fitxategi-liburua.
- e) Kontuak gordetzeko fitxategi-liburua.

2.- Halaber, errolda zuzen kudeatzeko egokitzat jotako fitxategi eta liburu osagarriak ere prestatu ahal izango dira.

1.- Los asientos del Registro se presumen exactos y válidos. Producirán todos sus efectos mientras no se inscriba la declaración de su inexactitud o nulidad.

2.- La declaración de inexactitud o nulidad no perjudicará los derechos de terceros de buena fe adquiridos conforme al contenido del Registro.

3.- La inscripción no convalida los actos o contratos que sean nulos con arreglo a las Leyes.

#### Artículo 10.- Prioridad.

1.- Inscrito o anotado preventivamente en el Registro cualquier título, no podrá inscribirse o anotarse ningún otro de igual o anterior fecha que resulte opuesto o incompatible con él.

2.- Las operaciones registrales se practicarán según el orden de presentación de los documentos siendo preferentes los que accedan primeramente al Registro sobre los que se presenten con posterioridad.

#### Artículo 11.- Tracto sucesivo.

1.- Para inscribir actos o contratos relativos a un sujeto inscribible será precisa la previa inscripción del sujeto.

2.- Para inscribir actos o contratos modificativos o extintivos de otros otorgados con anterioridad será precisa la previa inscripción de éstos.

3.- Para inscribir actos o contratos otorgados por apoderados o administradores será precisa la previa inscripción de éstos.

4.- La inscripción del nombramiento y cese de Administradores, miembros de la Comisión Ejecutiva, Consejeros-Delegados, Directores-Gerentes y miembros de la Comisión de Vigilancia, requerirá la previa inscripción de los acuerdos anteriores que, en su caso, se hubieran producido. La misma norma se aplicará respecto a la inscripción de miembros de los órganos de las Corporaciones cooperativas.

### CAPITULO III.- FUNCIONAMIENTO DEL REGISTRO

#### SECCION 1.- LIBROS

##### Artículo 12.- Libros.

1.- En el Registro de Cooperativas de Euskadi se llevarán los siguientes Libros:

- a) Libro Diario
- b) Libro de inscripción de Sociedades cooperativas y otras agrupaciones empresariales.
- c) Libro de inscripción de Asociaciones de Cooperativas.
- d) Libro-fichero de habilitaciones y legalizaciones.
- e) Libro-fichero de depósito de cuentas.

2.- Asimismo, podrán llevarse los Libros y ficheros auxiliares que se juzgue conveniente para la adecuada gestión del Registro.

3.- Atalburu honetan aipatzen diren liburu guztiek behar bezala beteta egon beharko dute eta orri bakoitzean erroldaren zigiluak agertu beharko du.

4.- Liburu hauetako oharpenak idazmakinez nahiz prozedura informatikoz egin beharko dira, eta, nolana ere, idatzitakoa ezabagaitza izan dadila ziurtatu beharko da.

### 13. atala.- Liburu egunkaria.

1.- Liburu egunkaria orri mugikorrez osatuko da, eta goi-eskuineko ertzean hurrenez hurren ezarritako zenbakiak izango dituzte.

2.- Liburu egunkariko orri bakoitza hiru zutabetan banatuko da. Lehenengo zutabean tarte zuri bat utziko da, bertan bidezko oharra egiteko; bigarren zutabean oharpen-zenbakia ipiniko da, eta hirugarrenean, aurkezpenari buruzko oharpenak. Zutabe horien goialdean honako titulu hauek ipiniko dira: «Ertzeko oharra», «Oharpen-zenbakia» eta «Aurkezpen-oharra».

14. atala.- Erroldatze-liburuei buruz guztientzako arauak.

1.- Erroldatze-liburuak orri mugikorrez osatuko dira. Goi-eskuineko ertzean Liburukia eta orriaren zenbakia ezarriko dira. Kooperatiba bati dagokion orria erabat betetzen denean, beste bat prestatuko da zenbaki berarekin eta alfabetoko lehenengo letrarekin, gainontzeko letrak hurrengo orrientzat utziko direla.

2.- Erroldatze-orria lau zutabe zutetan banatuko da. Lehenengo zutabean tarte bat utziko da, bertan ertzeko oharra ezartzeko, nahi izanez gero eskuz. Beste hiruretan eguna, oharpen-zenbakia eta oharpena egin izana adieraziko dira, eta gainaldean honako titulu hauek: «Ertzeko oharra», «eguna», «Oharpen-zenbakia» eta «Aurkezpen-oharra».

15. atala.- Kooperatiben eta bestelako enpresa-taldeen erroldatze-liburua.

Hona hemen kooperatibak identifikatzeko erakutsi beharreko zehaztasunak: kooperatibaren baltzu-izena, baltzu-egoitza, lurralde historikoa, aurkezpen-oharren eguna, kooperatiba mota, xede soziala, Ekonomi Ihardueren Sailkapen Nazionalen zenbakia, hasierako bazkide-kopurua, bazkideen izaera eta gutxienezko kapital soziala.

Era berean, orriaren goi-eskuineko ertzean kooperatibaren erroldatze-zenbakia ipiniko da, baita, hala badagokio, aurreko erroldan egokitu zitzaion erroldatze-zenbakia ere.

16. atala.- Kooperatiba elkarten Erroldatze-liburua.

Kooperatiben batasunak eta federazioak, federazio elkarteak eta gehienbat kooperatibak biltzen dituzten erakundeak identifikatzeko erakutsi beharreko zehaztasunak honako hauek dira: izena, baltzu-egoitza, lurralde historikoa, mota, espedienteari Liburu Egunkarian emandako sarrera eguna, hasiera batean elkartu edo federatutako erakunde kopurua eta diru-araubidea.

3.- Todos los Libros a que se refiere este precepto estarán debidamente diligenciados y llevarán en cada uno de sus folios el sello del Registro.

4.- Los asientos que se practiquen en estos Libros se extenderán a máquina o por procedimientos informáticos, debiendo quedar asegurado, en todo caso, el carácter indeleble de lo escrito.

### Artículo 13.- Libro Diario.

1.- El Libro Diario de presentación estará compuesto por hojas móviles que estarán numeradas correlativamente en el ángulo superior derecho.

2.- Cada hoja del Libro Diario se dividirá en tres columnas. La primera contendrá un espacio en blanco donde se extenderán las notas marginales que procedan. En la segunda se consignará el número de asiento y en la tercera los asientos de presentación. En la parte superior de dichas columnas se harán constar los epígrafes «Notas marginales», «Número de los asientos» y «Asiento de presentación».

Artículo 14.- Normas comunes sobre los Libros de inscripciones.

1.- Los Libros de inscripciones estarán compuestos por hojas móviles. En el ángulo superior derecho se hará constar el Tomo y el número de hoja. Agotada la hoja destinada a una entidad cooperativa se abrirá a continuación otra con igual número, seguido de la primera letra del alfabeto, destinándose las restantes letras para hojas sucesivas.

2.- La hoja registral se dividirá en cuatro columnas verticales. La primera de ellas contendrá un margen para insertar en él las notas marginales, que podrán practicarse manualmente. En las otras tres columnas se hará constar la fecha, el número de asiento y la extensión del mismo, haciéndose constar en su parte superior los epígrafes «Notas marginales», «Fecha», «Número de asiento» y «Asientos de inscripción».

Artículo 15.- Libro de inscripción de Sociedades cooperativas y otras agrupaciones empresariales.

Los datos que deberán hacerse constar para la identificación de las Sociedades cooperativas son los siguientes: denominación social de la Cooperativa, domicilio social, Territorio Histórico, fecha del asiento de presentación, clase de Cooperativa, objeto social, número de la Clasificación Nacional de Actividades Económicas, número inicial de socios, naturaleza de éstos y capital social mínimo.

Asimismo, en el ángulo superior derecho de la hoja se hará constar el número de inscripción de la Sociedad cooperativa y, en su caso, el número con el que figurase inscrita en el anterior Registro.

Artículo 16.- Libro de inscripción de Asociaciones de Cooperativas.

Los datos que deberán hacerse constar para la identificación de las Uniones y Federaciones de Cooperativas, Asociaciones de Federaciones y otras entidades asociativas que agrupen mayoritariamente a Cooperativas son los siguientes: denominación, domicilio social, Territorio Histórico, clase, fecha de entrada del expediente en el Libro Diario, número inicial de entidades asociadas o federadas y régimen económico.



Halaber, orriaren goi-eskuineko ertzean erakundearen erroldatze-zenbakia ipiniko da, baita, hala badagokio, aurreko erroldan egokitu zitzaion Erroldatze-zenbakia ere.

17. atala. – Gaitze eta legeztatzeen fitxategi-liburua.

Gaitze eta legeztatzeen fitxategi-liburua kooperatiba nahiz, hala badagokio, kooperatiben elkarte bakoitzarentzat banakatutako fitxa bidez eramango da. Fitxa horietan, hain zuzen ere, honako datuok adieraziko dira: entitatearen baltzu-izena eta erroldatze zenbakia, gaitu nahiz legeztatutako liburu mota eta gaitze nahiz legeztatze eguna.

18. atala. – Kontuak gordetzeko fitxategi-liburua.

Kontuak gordetzeko fitxategi-liburua kooperatiba bakoitzarentzat banakatutako fitxa bidez eramango da. Fitxa horietan, hain zuzen ere, honako datuok adieraziko dira: entitatearen baltzu-izena eta erroldatze zenbakia, gordetako agiri mota, kontuak zein egunetan gorde diren eta noizko ekonomi ekitaldikoak diren.

## 2. SEKZIOA. – OHARPENAK

19. atala. – Oharpen motak.

1. – Erroldako liburuetan honako oharpen mota hauek egingo dira:

- a) Aurkezpen-oharpena.
- b) Erroldatzeak.
- c) Prebentziozko oharrenak.
- d) Baliogabetzeak.
- e) Ertzetako oharrenak.

2. Errolda arduradunak bere izenpearekin eta zigiluz baimenduko ditu egiten diren oharpenak.

20. atala. – Oharpenak nola egin.

1. – Oharpenak labur egingo dira, erroldatu den agiria dagoeneko agiritegiaren erreferentzia eginaz.

2. – Erroldatu beharreko agiriak idatzita dauden Euskal Autonomi Elkarteke hizkuntza ofizialean egingo dira erroldako oharpenak.

Erakuste eta egiaztatze ondoretarako, edozein hizkuntza ofizialetako itzulpena bermatuko da, doakionak hala eskatzen badu behintzat.

3. – Oharpenak bata bestearen jarraian egingo dira, eta idatzi gabe utzitako tarte zuriak marra batez baliogabetuko dira.

Lehendik erroldatutako zehaztasun nahiz bestelako gorabeheren orde erreferentzia soilak egin daitezke, behin eta berriro errepika ez daitezken.

4. – Oharpenetan pertsona fisikoaren nortasuna ageritarazi nahi denean, haren izen-abizenak adieraziko dira. Pertsona juridikoak identifikatzeko, ordea, entitatearen baltzu-izena adieraziko da.

Asimismo, en el ángulo superior derecho de la hoja se hará constar el número de inscripción de la entidad y, en su caso, el número con el que figurase inscrita en el anterior Registro.

Artículo 17. – Libro-fichero de habilitaciones y legalizaciones.

El Libro-fichero de habilitaciones y legalizaciones se llevará mediante fichas individualizadas para cada Cooperativa, o, en su caso, Asociación intercooperativa, en las que se hará constar la denominación social de la entidad y su número de inscripción, la clase de Libro habilitado o legalizado y la fecha de habilitación o legalización.

Artículo 18. – Libro-fichero de depósito de cuentas.

El Libro-fichero de depósito de cuentas se llevará mediante fichas individualizadas para cada Cooperativa en las que se hará constar: la denominación social de la entidad y su número de inscripción, tipo de documento depositado, fecha de depósito y ejercicio económico a que hace referencia el depósito.

## SECCION 2. – ASIENTOS

Artículo 19. – Clases.

1. – En los Libros del Registro se practicarán las siguientes clases de asientos:

- a) Asiento de presentación
- b) Inscripciones
- c) Anotaciones preventivas
- d) Cancelaciones
- e) Notas marginales

2. – El Encargado del Registro autorizará con su firma y sello los asientos extendidos.

Artículo 20. – Extensión de los asientos.

1. – La extensión de los asientos se hará de forma sucinta, remitiéndose al archivo correspondiente donde conste el documento objeto de inscripción.

2. – Los asientos del Registro se extenderán en la lengua oficial de la Comunidad Autónoma del País Vasco en que aparezcan redactados los documentos objeto de inscripción.

A efectos de exhibición y/o certificación, se garantizará la traducción a cualquiera de las citadas lenguas oficiales, a solicitud del interesado.

3. – Los asientos se practicarán a continuación unos de otros, inutilizando los espacios en blanco de las líneas que no fueran escritas por entero, mediante una raya.

Los datos u otras circunstancias ya inscritos podrán sustituirse por simples referencias con el objeto de evitar su reiteración.

4. – Cuando en los asientos haya de hacerse constar la identidad de una persona física, se consignará su nombre y apellidos. Para la identificación de las personas jurídicas se hará constar la denominación social de la entidad.

5.- Baltzu kapitalari buruzko kopuru, data eta zenbakiak letraz adieraziko dira. Gainerako kasuetan zenbakiak erabil daitezke.

*21. atala.* - Oharpenen antolaketa.

1.- Erroldatze liburuetan egindako erroldatzeak eta ezeztapenak oharpenentzat prestatutako eskuineko zutabearen egingo dira, bata bestearen jarraian, eta hurrenez hurren zenbaki bidez zerrendatuko dira.

2.- Prebentziozko oharpenak eta horien ezeztapenak erroldatzeko eta erroldatzea ezeztatzeke era berean egingo dira eta letra bidez adieraziko, alfabetoaren hurrenkeran.

3.- Ertzeko oharrek errolda-orriaren ezkerreko ertzear egingo dira, eta erroldatze bakoitzari buruz egiten diren hurrenkeraren arabera zenbatuko.

*22. atala.* - Aurkezpen oharpena.

1.- Eguna hasterakoan, Liburu Egunkarian lehendabiziko aurkezpen oharra egin aurretik eta azkeneko lanegunari amaiera emateko eginbidearen ondoren, irerkitze-eginbidea egingo da, zein egun den adieraziz.

Eguna amaitzerakoan ixte-eginbidea egingo da, erroldaren arduradunak izenpetu eta zigilaturik, eta egun osoan zehar egindako oharpenekiko adostasuna adieraziko da eginbide horrekin.

Egun osoan agiririk aurkezten ez bada, «ez da agiririk aurkeztu» leloarekin adieraziko da gorabehera hori, eta jarraian ixte-eginbidea egingo da.

2.- Aurkezpen oharpenaren zer-nolakoak dekretu honetako 23. atalean oharthemandakoak izango dira, atal horretako d) letran oharthemandako Liburu Egunkariko orriaren aipamena izan ezik. Oharpen hori egiten den egunetik hasi eta hiru hilabetetan egingo da indarrean.

3.- Erroldatu beharreko agiriak Herri-Administrazioen Lege-Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko Legeko 38.4 atalean oharthemandako bideetakoren bati jarraiki bidali daitezke erroldara.

4.- Aurkezpen oharra egin izana jakinarazi beharko zaio doakionari, aurkeztutako agiri mota, oharpenaren eguna eta oharpena Liburu Egunkariko zein orritan egin den adieraziz.

Moldez nahiz edukiz Erroldan eragiketarik ezin eragin duten nahiz beste Errolda edo bulego publikoren baten eskumenekoak diren agirien aurkezpen oharpenik ez da egingo. Oharpen hori erabaki arrazoituaz ukatuko da eta horren aurka auzibide zibilaren aurreko erreklamazioa edo, hala badagokie, errekurtsio arrunta egin dezakete doakienek.

*23. atala.* - Oharpenen edukia.

Erroldatzeko, ezeztapena egiteko nahiz prebentziozko oharrek egiteko oharpen orok honako zehaztasun hauek jaso behar ditu:

5.- Las cantidades, fechas y números que hagan referencia al capital social se expresarán en letras. En los demás casos podrán emplearse guarismos.

*Artículo 21.* - Ordenación de los asientos.

1.- Las inscripciones y sus cancelaciones, extendidas en los Libros de inscripciones, se practicarán en la columna derecha destinada a los asientos, a continuación una de otra y se enumerarán de forma correlativa mediante guarismos.

2.- Las anotaciones preventivas y sus cancelaciones se practicarán en la forma señalada para las inscripciones y sus cancelaciones, y se identificarán mediante letras, ordenadas alfabéticamente.

3.- Las notas marginales se practicarán en el margen izquierdo de la hoja registral y se identificarán numéricamente por el orden en que aparezcan hechas en relación a cada inscripción registral a la que vengan referidas.

*Artículo 22.* - Asiento de presentación.

1.- Al inicio del día, antes de extenderse el primer asiento de presentación en el Libro Diario y, a continuación de la diligencia de cierre del último día hábil, se extenderá la oportuna diligencia de apertura con expresa mención de la fecha que corresponda.

Al término del día se extenderá diligencia de cierre firmada y sellada por el Encargado del Registro, lo que implicará la conformidad con todos los extendidos durante el día.

Si no se presentaran documentos durante el día se hará constar dicha circunstancia mediante la fórmula «Sin documentos presentados», extendiéndose seguidamente la correspondiente diligencia de cierre.

2.- El asiento de presentación contendrá las circunstancias previstas en el artículo 23 del presente Decreto a excepción de la mención a la hoja del Libro Diario prevista en la letra d) del citado precepto. Dicho asiento tendrá una vigencia de tres meses a contar desde la fecha de su extensión.

